

AZEBARRI KULTUR
ELKARTEAREN
ESTATUTUAK

AZEBARRI KULTURA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

ATARIKOA

AZEBARRI Kultura Elkartea Uribe Kostako hainbat euskaltzalek sortu dugu eta gure asmoa hirukoitza da. Alde batetik, ALBE bertsoeskolak bertsolaritzaren arloan hiru hamarkadetan egindako lana babestea eta etorkizunean sendotzen laguntzea, behar duen azpiegitura eskainiz eta bidebatez, euskal eskaintza kultural zabala antolatuz eta aurrera eramanez. Beste aldetik, Uribe Kostan euskaldunoi gure artean euskaraz bizitzeko eta gozatzeko arnagunea eskaini. Azkenik, belaunaldi desberdinen arteko topagune anitza eta zabala, eta euskara eta euskal kulturara hurbildu nahi duenarentzat erreferentzia bat sortu nahi dugu.

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA ARAUBIDEA

1. artikulua.- Izena eta araubidea

2014ko otsailaren 13an AS/B/1815372014 erregistro zenbakiarekin inskribatutako Algorta-Getxoko irabazi-asmorik gabeko AZEBARRI KULTURA ELKARTEAREN estatutuak aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Euskal kultura eta bertsoa uztartzen dituen elkarte da, euskal kultura eta bertsogintza sustatu nahi dituen pertsona orori irekia dago.

AZEBARRI KULTURA Elkartearen araubidea honako hau izango da: Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa; Euskal Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea; estatutu hauek, elkartearen gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiak eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

2.- Artikulua.- Izaera

AZEBARRI Elkartearen izaera kulturala, aisialdirakoa eta gastronomikoa izango da, Euskararen inguruan solas eta jolas egiteko, elkartzeko eta gozatzeko xedea duena.

Izaerarekin bat etorritz, elkartearen **ezaugarriak** honako hauek izango dira:

- Euskara zale guztiei irekia egongo da, eta bereziki, euskaraz bizi eta bere aisialdian eta kultur esparruan euskaraz jardun nahi duten guztientzat.
- Bere jarduera kultura eta bereziki euskarazko adierazpen kulturalak indartzeko, beharrezko eta egoki diren lan eta ekintzak antolatzea izango da.
- Bazkideen arteko aisialdirako bilgunea izango da
- Bazkideen lana bideratzeko bilgunea izango da.
- Beste edonolako elkarte, alderdi politiko edo erakundeekiko funtzionamendu autonomoa izango du. Ez du inongo eta inoren morrontzarik. Beraz, bere jokabidea ahal den estuen lotuko zaio izaera horri.
- Bere egitasmoa burutzean, ahal duen heinean Udalarekin eta beste erakunde publikoekin lankidetzan jarduten saiatuko da.
- Kulturaren aldeko lan edo antolakuntzetan beste elkarte edo erakunde pribatuekin lankidetzan eta elkarlanean aritzen saiatuko da.

3. artikulua.- Helburuak

Elkarte honen **goi-helburuak** honako hauek dira:

Euskal kultura, euskal giroa eta euskara bultzatzea eta indartzea da Elkartearen goi helburua. Bereziki, Elkartearen helburu nagusia Uribe Kostan eta Getxon euskarazko adierazpen kulturala indartzea da eta euskaraz bizi nahi duten herritarrei elkartzeko arnagune bat eskaintzea, bertsolaritzari arreta berezia eskainiz. Beraz, helburu hauek eskuratzeko erabiliko da biltokia, horretarako ahal diren bitarteko guztiak jarritz.

Goi-helburu horri begira, elkarteak honako **helburu zehatzak** ditu:

- Kultura eta kultura zaletasuna bultzatzea.
- Euskarazko kultura adierazpenak antolatzea eta bultzatzea, eta besteak beste, bertsolaritzarekin zerikusia dutenak.
- Euskal kultura zaleen eta bertsozaleen bilgune izatea eta haien elkarlana bideratzea. Era berean, kultur zale eta bertsozale ez direnak erakartzea.
- Euskal Kulturarekiko jarreraz hausnarketa autokritikoa bideratzea.
- Bere jardueren berri emateko eta kulturaz informatzeko, komunikabideak sortzea eta sustatzea.
- Euskara bultzatzea, eta bere komunikazio eta lan hizkuntza izatea.

- Bazkideen arteko adiskidetasuna eta komunikazioa sustatzea eta elkartearen xede iraunkorra den bizikidetzaren bultzatzea eta zaintzea.

- Bazkideek lokalaz gozatzea eta erabiltzea, beren aisialdian euskaraz jarduteko, barne araudiaren arabera.

Helburu horiek lortzeko edonolako **ekintzak** eramango ditu aurrera, ezarritako legezko baldintzak bere ondoren:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduerak ekonomikoak gauzatzea.

- Era guztietako ondasunak eskuratzea eta edukitzea, eta mota guztietako ekintzak eta hitzarmenak egitea.

- Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta bere estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

4. artikulua.- Elkarte honen **egoitza** helbide honetan egongo da:
Kalea: Euskal Herria, zk.: 14-16 behekoa –Algorta-GETXO, 48991;
telefonoa: 687273721; azebarri@gmail.com, azebarri@azebarri.eus
Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan,
Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

5. artikulua.- Elkarte honek nagusiki **lurralde-eremu** honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Uribe Kostan eta Getxon, baina eskualdetik kanpo ere aparteko jarduerak egin ahal izango ditu.

HIZKUNTZA JARDUPIDEA

6. artikulua.- Elkarteak aurrera bultzatuko dituen jarduerak ezberdinetan, nahiz bere baitako funtzionamenduan, nahiz beste pertsona edo erakundeekiko harremanetan, euskara izango da erabiliko duen hizkuntza. Egoerak hala behartzen duenean, erdara erabiliko du, esparru erdaldunak euskaraz funtzionatzen jartzeko helburua ere baduelako elkarteak.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA

7. artikulua.- Elkarteak **iraunkorra** izateko eratu da, eta IV. kapituluaren esatenenez, ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua **demokratikoa** izango dira, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak

izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZA- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

8. artikulua.- **Kide anitzeko honako organo** hauek izango dira Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.
- Agenda Kulturalaren Idazkaritza izango da elkartearen eskaintza kulturala kudeatuko duen organoa.
- Horniketarako Idazkaritza izango da sozietate gastronomikoaren jardueraren kudeaketaz arduratuko den organoa.

BATZAR OROKORRA

9. artikulua.- Batzar Orokorra:

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Guztiz deusezak izango dira Estatutu hauen aurkako erabaki edo hitzarmenak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina, eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Batzordeak izendatzea lan jakinak egiteko edo gai zehatza aztertzeko.
- h) Bazkide kopurua areagotzea edo murriztea.
- i) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.

- j) Ondasun higiezinak erabiltzeko edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- k) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaien erabakitzea, hala komeni bada.
- l) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea edota diru-sarrerak eskuratzeko sistemak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak zuzendaritza batzordeari eskuorde diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- m) Elkartean sartzeko kuotaren balioa eguneratuta mantentzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- n) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- o) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

10. artikulua.- Ohiko eta ez ohiko batzarrak:
Batzar Orokorrak ohiko eta ezohiko batzarrak egingo ditu.

11. artikulua.- Urteko ohiko batzarra:
Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko batzarra: 4. hiruhilekoan izango da, 10. artikuluko a), b) eta c) idatzatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

12. artikulua.- Ez ohiko bilkurak:
Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko batzarrean, bere ekimenez edota bazkideen %15ak eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

13. artikulua.- Deialdia eta baliozko eratze baldintzak:
Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez zazpi egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada, bazkidea bera edo bere ordezkariaren bidez agertuta; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

14. artikulua.- Baliozko erabakiak hartzeko baldintzak:

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezekoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

Bozketetan berdinketa gertatuz gero, bozketa errepikatu egingo da. Bozketa errepikatu ondoren berdinketak bere horretan jarraituko balu, lehendakariaren boto ebazleak erabakiko luke.

15. artikulua.- Bazkideen ordezkotza:

Bazkideek beste edozein bazkideren esku utz dezakete beren ordezkotza Batzar Orokorretan parte hartzeko. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da eta Batzarreko idazkariari eman, gutxienez bilera hasi baino ordubete lehenago. Eskuordetzea elkartearen web orriaren bidez ere egin ahal izango da zuzendaritza batzordeak ezarritakoaren arabera.

Ordezko bozka gai-zerrendaren puntuetarako bakarrik eman ahal izango da. Bazkide bakoitzak ezin izango du 2 bozka baino gehiago ordezkatu (guztira 3 bozka, berea barne).

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

16. artikulua.- Zuzendaritza-batzordearen eginkizunak, osaketa eta gutxienezko biltzea:

Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira LEHENDAKARIA, LEHENDAKARIORDEA, IDAZKARIA, DIRUZAINA ETA LAU BATZORDEKIDE (Agenda kulturalaren idazkaritzaren ordezkaria, sozietatearen kudeaketarako bodega-zaina; sozietatearen mantenu orokorraren arduraduna eta komunikazio arduraduna)

Gutxienez HIRU HILEAN BEHIN bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

17. artikulua.- Zuzendaritza kideen ez-etortzeak:

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 5 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu behar bezala arrazoitzen.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideen hautaketa eta agintaldia:

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak.

Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzar Orokorrak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

19.- artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzea:

Zuzendaritza Batzordea 2 urtero batzordekide erdia berrituko da. Bi urte igarotzerakoan lehendakaria, diruzaina eta bost batzordekideetik bi berrituko dira (agenda kulturalakoa eta bodega-zaina) eta hurrengo bi urte igarotzerakoan lehendakariordea, idazkaria eta beste hiru batzordekideak (mantenu-zaina eta komunikazio arduraduna).

Nolanahi ere, elkarte eratu eta bi urtetara lehenengo Zuzendaritza Batzordea oso-osorik berrituko da.

Zuzendaritza Batzordea uzten duten kideek kargu utzi eta hurrengo sei hilabetean zehar lankidetzan jardungo dute zuzendaritza berriko kargudunekin, elkartearen jarduerak etenik izan ez dezan.

Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio bere hautagaiak. Nolanahi ere, bazkideak ere aurkeztu ahal izango dira bere hautagaitza idazkariari jakinaraziz.

Batzar Nagusiak erabakiko du Zuzendaritza Batzordearen proposamenak onartzen dituen edo beste bazkideren bat proposatzen duen. Bazkideek aurkeztutako hautagai guztien artean bozkatu ahal izango dute.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko baldintzak:

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.

- c) Elkarteko bazkidea izatea.
- d) Bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izatea eta horrela egingo duelako konpromisoa hartzea.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko karguaz jabetzea:
Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

22. artikulua.- Kargua uztea:

Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 18. artikulua aplikatuz, zuzendaritza batzordeko kideak bileretan hutsegiteak eginez gero.
- e) Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakiz gero.
- f) Hiltzen baldin badira.

“a)” idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) e) eta f) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

23. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- b) Elkarreak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.

- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Beste elkarteekiko edo erakundeekiko harremanez arduratzea.
- h) Elkartearen artxiboaz eta bere historia biltzeaz arduratzea.
- i) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren boto eabzlea izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta erabaki-akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira. Akten liburua web orriaren bidez argitara daiteke.

25. artikulua.- ELKARTEAREN URTEKO ESKAINTZA KULTURALA PROGRAMATZEKO IDAZKARITZA

Elkartearen barnean eta gizarteari begira euskal kultur adierazpenak sustatzearen alde (agenda kulturala) lan egingo duen talde programatzailea izango da.

Elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan bildu beharko dute.

Idazkaritza hau gutxienez osatuko dutenak izango dira: zuzendaritza batzordean batzordekidea izango den bazkide bat eta bere ordezkio izango den beste bat. Bi kide horiek egoki deritzoten bazkideak aukeratuko dituzte idazkaritza hau osatzeko eta bere zereginetan laguntzeko.

Batzar orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordekide izango den eleduna eta bere ordezkioa. Kargu horiek 4 urtetarako izendatuko dira.

Kargudun berberak behin eta berriro hautatu ahal izango dira, nahiz partzialki nahiz guztira.

Bi kideetako batek ALBEko kidea izan beharko du, bermatzeko agenda kulturean bertsolaritzak bere toki nabarmena izango duela.

Batzordekideak Zuzendaritza Batzordearen bileretan parte hartzeko obligazioa izango du. Batzordekideak ezin duenean, bere ordezkoa joango da.

Agenda Kultureko idazkaritzaren eginkizuna izango da Zuzendaritza Batzordeari ekintza kulturalen egutegia proposatzea, horrek lokalaren erabilerarako egutegia ezartzerakoan ekintza kulturei lehentasuna emateko. Ekintza kulturaletarako aurreikusitako datak egun gorri bezala adieraziko dira elkartearen egutegian. Egutegiko egun gorriak bazkide guztiek errespetatu beharko dituzte, behin Zuzendaritza Batzordeak onetsi ondoren.

Eskaintza Kulturala Programatzeko Idazkaritza ekintza kulturalen antolaketaz arduratuko da. Elkartearen aurrekontuaren barnean bere aurrekontu propioa izango du eta autonomia izango du bere kudeaketarako. Idazkaritza honek Batzar Nagusiari urteko batzarrean zuzenean emango dizkio aurrekontuaren inguruko behar besteko azalpen guztiak eta Zuzendaritza Batzordeak ere egoki deritzon kontuak eskatu ahal izango dizkio urtean zehar, kudeaketa egokia bermatze aldera.

Eskaintza Kulturala Programatzeko Idazkaritzako kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkide izatea.

Idazkaritza honetako kideek beren eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar dute eta euskaraz beteko dituzte .

26. artikulua.- ELKARTEAREN SOZIJETATE JARDUERA ANTOLATZEKO ETA HORNITZEKO IDAZKARITZA

Elkartearen barnean eta gizarteari begira sozietate jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko lan talde eragilea izango da.

Elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan bildu beharko dute.

Idazkaritza hau osatuko dutenak gutxienez honako hauek izango dira: HIRU BAZKIDE, zuzendaritza batzordean batzordekidea izango direnak, DIRUZAINA eta LEHENDAKARIORDEA.

Eledun bat BODEGA-ZAINA izango da eta bere eginkizunak honako hauek izango dira:

- Sukaldeko tresnez, baxeraz, jakiez, edariez eta gainontzeko tresnez eta gaiez hornitzea eta kontrolatzea
- Bazkideen hornikuntza beharrak asetzea eta kexak jasotzea
- Elikagaien eta edarien inbentarioa eramatea bi hilero behin.
- Asteko kontsumoen balorazioa egitea.
- Erosketa eta gastu guztien egiaztatgiriak eskatzea eta diruzainari aurkeztea onar dezan eta ordaintzeko agindua eman dezan.
- Sozietatearen funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren gainontzeko jarduerak egitea.

Beste eleduna LOKALAREN MANTENU-ZAINA izango da eta bere ardura izango da lokalaren instalazio eta zerbitzu guztiak behar bezala egotea eta behar diren konponketen berri Zuzendaritza-batzordeari ohartaraztea.

Batzar orokorrak hautatuko ditu bodega-zaina eta mantenu-zaina eta beren ordezkioak. Kargu horiek 4 urtetarako izendatuko dira. Kargudun berberak behin eta berriro hautatu ahal izango dira, nahiz partzialki nahiz guztira.

Bodega-zainak eta lokalaren mantenu-zainak Zuzendaritza Batzordearen bileretan parte hartzeko obligazioa izango dute.

Sozietate Jarduera antolatzeko eta Hornitzeko Idazkaritzak Elkartearen aurrekontuaren barnean bere aurrekontu propioa izango du. Ohiko gastuei aurre egiteko aurrekontu hori autonomiaz kudeatuko dute Idazkaritza honetako kideek. Ez ohiko gastuak, ordea, Zuzendaritza Batzordearen baimena beharko dute.

Diruzainak Batzar Nagusiari urteko batzarrean Idazkaritza honen aurrekontuaren inguruko behar besteko azalpen guztiak emango dizkio. Zuzendaritza Batzordeak ere egoki deritzon kontuak eskatu ahal izango dizkio urtean zehar, kudeaketa egokia bermatze aldera.

Sozietatearen jarduera antolatzeko eta hornidura bermatzeko Idazkaritzako kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Estatutueta aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkide izatea.

Idazkaritza honetako kideek beren eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar dute eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko dute .

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

27. artikulua.- Lehendakariaren eginkizun nagusiak eta hizkuntza gaitasuna:

Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

Lehendakariak harremanak euskaraz izateko eta bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

28. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero bere bozka ebazleaz erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

LEHENDAKARIORDEA

29. artikulua.- Eginkizunak eta hizkuntza gaitasuna:

Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatu du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

Lehendakariordeak Sozietate Jarduera Antolatzeko eta Hornitzeko Idazkaritzako kidea izango da.

Lehendakariordeak harremanak euskaraz izateko eta bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

IDAZKARIA

30. artikulua.- Eginkizunak:

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

Batzar Nagusiko eta Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak iragarki taulan eta web-orrian eskegiko dira, edozein bazkidek eskura izan dezan.

Idazkariak harremanak euskaraz izateko eta bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

DIRUZAINA

31. artikulua.-Eginkizunak:

Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onar ditzan.

Diruzaina Sozietatearen jarduera antolatzeko eta hornidura bermatzeko Idazkaritzako kide izango da eta jarduerak horrek eskatzen dituen ordainketak baimenduko ditu.

Elkarteen sistema ekonomiko osoa gutxienez hiru hilero aurkeztuko zaio Zuzendaritza Batzordeari. Sistema hori, onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da, iragarki taulan eta web-orrian, edozein bazkidek eskura izan dezan.

Diruzainak bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

AGENDA KULTURALAREN BATZORDEKIDEA

32. artikulua.-Eginkizunak:

Agenda Kulturalaren eledunak Agenda Kulturala Programatzeko Idazkaritzak egiten duen lanaren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari. Bere eginkizunen artean urteko egutegiko egun gorriak zehaztea izango da, Zuzendaritza Batzordeak elkartearen urteko egutegia onetsi dezan.

Eledunak Batzar Nagusiari urtero bere idazkaritzaren kudeaketa kulturala eta ekonomikoaren berri eman beharko dio.

Eledunak diruzainari hiru hilero behin emango dio Batzar Nagusiak bere Idazkaritzari onartutako aurrekontuaren egoeraren berri eta Zuzendaritza Batzordeak eskatzen dion aldiro.

Agenda Kulturalako eledunak bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

BODEGA-ZAINA

33. artikulua: Eginkizunak:

Bodega-zaina sozietatearen hornikuntzaz eta kudeaketaz arduratuko da eta bereziki ondoko ardurak izango ditu:

- a) Sukaldeko tresnez, baxeraz, jakiez, edariez eta gainontzeko tresnez eta gaiez hornitzea eta kontrolatzea
- b) Bazkideen hornikuntza beharrak asetzea eta kexak jasotzea
- c) Elikagaien eta edarien inbentarioa eramatea bi hilero behin.
- d) Asteko kontsumoen balorazioa egitea.
- e) Erosketa eta gastu guztien egiaztatgiriak eskatzea eta diruzainari aurkeztea onar dezan eta ordaintzeko agindua eman dezan.
- f) Zuzendaritza Batzordeak sozietatearen kudeaketari buruz esleitzen dion beste edozein eginkizun.

Bodega-zainak bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko.

MANTENU-ZAINA

34. artikulua: Eginkizunak:

Mantenu-zainaren ardura izango da lokalaren instalazio eta zerbitzu guztiak behar bezala egotea eta behar diren konponketen berri Zuzendaritza-batzordeari ohartaraztea.

KOMUNIKAZIO BATZORDEKIDEA

35. artikulua: Eginkizunak:

Komunikazio batzordekidearen ardura izango da elkartearen web ataria martxan edukitzea eta hobetzeko proposamenak egitea Zuzendaritza Batzordeari, bai kanporako informazioa ahal den osoen eta argien emate aldera eta bai bazkideei beren arteko komunikazioa errazte aldera eta kudeaketa ahal den gardenen izatea bermatze aldera.

Komunikazio arduradunak bere eginkizunak euskaraz betetzeko gai izan behar du eta euskaraz betetzeko konpromisoa hartuko du.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

36. artikulua. Baldintzak.-

Bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

37. artikulua.- Bazkide motak: Batzar Orokorraren erabakiz elkarrekin **ohorezko bazkideak** izendatu ahal izango ditu. Bazkide izateko baldintza guztiak bete beharko dituzte eta, haien artean, elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezinako pertsona fisikoak ere izenda ditzake.

Elkarte honek, **bazkide arruntez** eta ohorezko bazkideez gain, **bazkide babesleak** ere eduki ahal izango ditu, elkarteari diru laguntza emango lieketenak.

Ohorezko bazkideak eta bazkide babesleak ez dira legezko bazkide, ez dute elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako jardute sailetan

parte hartzeko eskubiderik, ezta inongo betebeharririk ere. Hala ere, haien proposamen nahiz iradokizunak berariaz aztertuak izango dira elkarte honen partetik. Agenda kulturalaren ekintzetan parte hartu ahal izango dute bazkide arrunten baldintza berdinetan.

38. artikulua.-Bazkide berrien onarpenerako prozedura:

Elkartean sartu nahi duenak bere eskabidea idatziz aurkeztu beharko dio lehendakariari, bi bazkideren sinadurarekin. Eskabidean bere izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefono edo helbide elektronikoko bat adierazi beharko ditu.

Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari. Ondoren, Idazkariak elkartearen iragarki oholean (web orrian) eskegiko du eskaera, bazkideek horren berri izan dezaten eta 15 eguneko epean (jai egunak barne) egoki deritzoten ohar eta eragozpenak adieraz dezaten.

Epea amaitzerakoan Zuzendaritza Batzordeak bertaratutakoen gehiengoz (gehiengo arruntaz alegia) erabakiko du eskabidea egin duena elkartearen onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioko Batzar Orokorrean. Batzar Orokorrak gehiengo arruntez erabakiko du.

Bazkide berriak sarrera kuota ordaindu beharko du.

Elkartean bazkideen gehienezko kopurua beteta balego, itxaron zerrendan sartuko da eta eskariaren dataren araberrako hurrenkerari jarraituko zaio.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

39. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakerari, elkartearen kontu-egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.

- Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzea (liburutegiak, elkartearen egoitza, eta abar). Zuzendaritza Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
- Sozietate erabilerari dagozkion datuen gaineko informazioa jasotzea, hala nola, ezarritako sal-neurriak, zenbateko kontsumoak, elikagaiez eta edariez hornitzeko ordaindutako prezioak ...
- Bazkideen senitartekoei eta bazkidearen lagunek gonbidatu kontsiderazioa izango dute eta bazkidearen ardurapean egongo dira.
- Bazkide bakoitzak kide baimendu bat izendatzeko eskubidea izango du elkarteko idazkariari honen berri emanez eta estatutu honen 40 bis artikulua ezarritako baldintzetan.
- Haurrak (14 urte bitartekoak), adinez nagusi diren pertsonen lagunduak baldin badira, sar daitezke Euskal Tokira eta hauek izango dira haurren portaera zainduko dutenak eta beren erantzule.
- Bere oinordekoari bere bazkidetza lagatzea, beti ere, elkarrekin oinordekoa bazkide berri gisa onartuko balu, bazkide berriak onartzeko izapideak egin eta gero.(Onar daiteke prozedura errazago bat, esaterako babes sinadurak ez eskatzea eta zuzendaritza batzordeak besterik gabe onartzea...).
- Lokala edo mahaiak gordetzeko araubidea zuzendaritza-batzordeak ezarriko du elkartearen barne-araubidearen baitan. Nolanahi ere, elkartearen agenda kulturalak lehentasuna izango du norberaren erabileraren gainetik.
- Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

40. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek gauzatzeko lankidetzak aktiboa ematea. Ekintzetarako zuzendaritza-batzordeak bazkideen laguntza eskatuz gero, bazkideek laguntzeko beharra izango dute.
- Elkarteko zuzendaritza-organoei baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.
- Bazkide guztiek dute Elkartearen martxa onaren alde jokatzeko obligazioa eta bere izen onaren alde egitekoa. Okerren bat edo balego Batzorde-zuzendaritzari jakinarazteko beharra dute.
- Bazkide guztiek errespetua zor diete gainontzeko bazkideei eta denon arteko anaitasun giroa landu eta zaintzeko beharra dute.
- Lokalaren giltza ezin da inolaz ere bazkide ez den inori utzi eta ezin da giltzaren kopiarik egin. Nolanahi ere, bazkide bakoitzaren baimendutako kideak bazkidearen giltza erabili dezake. Baimendua ez den beste bati giltza uztea edo kopia egitea, arau-huste larria izango da.
- Bazkideak berak eramandako pertsonen portaeraren eta egindako gastuen erantzulea, eta ez bada ezinbestekoa ezin du lokaletik alde egin berak eramandako pertsonen alde egin arte.
- Lokala erabili eta gero, bazkideak garbi eta txukun utzi beharko du: sukaldeak, erabilitako tresneria eta baxera, mahaiak eta abar garbi, erratza pasatuta eta tresna bakoitza bere tokian gordeta. Argiak eta instalazioak ere, zuzendaritza-batzordeak agindu moduan. Lokala erabili eta gero, behar bezala uzten ez bada, arau-huste larria izango da eta garbiketaren kostua ordaintzeko isuna jasoko du.
- Erabat debekatuta dago lokalaren tresnak lokaletik ateratzea, zuzendaritza-batzordeari baimena eskatu gabe.
- Bazkideak lokala erabili eta gero segituan bete beharko du kontsumoen oharra. Oharra betetzeko zuzendaritza-batzordeak ezarritako salneurrien zerrenda erabili beharko du. Dirua gutun-azal batean sartuko da bazkidearen izena eta data jarritz. Zorretan utzitako ere, oharrean adieraziko da.
- Axolagabekeriagatik plater, ontzi edo tresnaren bat apurtzen duenak ordaindu egin beharko du.
- Ezin da lokalaren barruan erre.
- Debebatuta dago animaliak lokalera sartzea.
- Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.

40 Bis artikulua.- Baimendutako kidearen eskubide eta betebeharrak

39. artikuluan adierazi bezala, bazkide bakoitzak baimendu bat izenda dezake. Baimenduak bazkidearen eskubide eta betebeharrak berak izango ditu lokala erabiltzeari dagokionez eta elkarteko ekintzetan parte hartzeari dagokionez. Baimenduak txokoa erabili ahal izango du

bazkidea lokalean egon barik eta kontsumoak eta erreserbak bazkidearen izenean egingo ditu. Bete beharren artean kultur jardueretan parte hartzeko konpromisoa izango du. Ez du bozka eskubiderik izango eta ezin izango du zuzendaritzako kide izan.

Bazkideek baimendua izendatzeko, idazkariari mezu elektronikoko bat bidali behar dio baimenduaren izen abizen, nortasun agiri eta telefonoarekin. Urtean behin egin daiteke izendapena, zuzendaritzak erabakitako epearen barruan.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

41. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

LAUGARREN KAPITULUA **ZIGOR-ARAUAK**

42. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

43. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta

larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentari hasiera ematea erabaki dezake.

44. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditenteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsioa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide- eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

45. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
46. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako- bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

BOSGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

47. artikulua.- Elkartearen hasierako ondarea zero da eta aurrerantzean bazkideen ekarpenez eta norbanakoan edota erakunde publiko zein pribatuaren diru-laguntzez osatuko da.

48. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Sarrera-kuotak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarate- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarateak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

SEIGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

49. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengilea izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

50. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

51. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetak aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrek Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

52. artikulua.- Elkartearen arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuaren finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartearen desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

53. artikulua.- Elkartearen deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrek Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko LEHENDAKARIA, LEHENDAKARIORDEA, DIRUZAINA, IDAZKARIA ETA eledunak diren kideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo batzar orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrek barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuaren aginduak aldatuko.